

Iratxe Andueza, ikerlaria

«Uste baino lotura handiagoa izan dugu Kanadako herri indigenekin, aspaldi-aspalditik»

Kanadan dabil Iratxe Andueza. Euskal arrantzaleek XVI. mendean hara eramandako tresnak aztertzen ari da. Euskara-algonkinoa pidgina gertutik ezagutzeko aukera izan du. Orain indigenok nola bizi diren ere badaki, eta ezin egin balorazio onik.



Reyes Ilintxeta

@ReyesIlintxeta

ARGAZKIAK: XABI OTERO

Zure ibilbidea laburra baina trinkoa, ezta?

Txikitari bi urtez bizi izan nintzen Garrantaldan, eta ondoren, astean zehar Iruñean, ama San Fermin ikastolako irakaslea zelako eta aitak ere hemen egiten zuelako lan. Batxilergoa bukatutakoan Baionara joan nintzen unibertsitatara, Euskal Ikasketak egitera. Antropologia, Soziolinguistika, Soziologia, idazketa lantzeko ikastaroak, Historia, Geografia, euskara, frantsesa... denetik ikasten da. Oso karrera polita da. Han hiru urte eginda, udazken hasieran Kanadara joan nintzen bi urterako, printzipioz.

Zer dela eta Kanadara?

2011tik harremana daukat laguntzaile gisa Jauzarrea, euskal kulturaren azterketa eta zabalkunderako funtsarekin. Oreina Urkian Kanata biltzarretan izan nuen euskaldunon eta Kanadako indigenen arteko harremanen berri. 24 hitzaldi baino gehiago eskaini dituzte urte hauek gai horren inguruan eta oso aztergai egokia iruditu zitzaidan masterra egiteko. Quebeceko Laval Unibertsitatean ikusi nuen bi urteko graduondoko ikastaroa egiteko aukera eta hara joan naiz.

Zer da zehazki ikasten duzuna?

Graduondo honetan hango herrien antolakuntza nolakoa den ikasten da eta baita etnologia, arkeologia eta abar. Ikasketa orokorrak dira, hemen Euskal Ikasketen karreran, Gasteizen edo Baionan, egiten direnen antzekoak.

Hasieran proiektua aurkeztu behar duzu eta gero, horren arabera, nahi dituzun ikasgaiak aukera ditzakezu. Nire lanaren izena oso orokorra da: *Objektuen transmisioa Kanadako Lehen Nazioen eta Euskaldunen artean XVI. mendean*. Laurier Turgeon, etnologia irakasle eza-guna da nire proiektuaren zuzendaria. Berak ikertu zuen oso ongi XVII. mendeko harremana eta ni pixka bat atzerago joanen naiz, XVI. mendera, hori baita harreman estuena izan zen garaia.

Etnologia eta ondare materiala da nire ikerketaren abiapuntua; euskaldunen eta hango indigenen arteko harremana, objektuen trukaketan oinarrituta. Hala ere, ondare materialaz haratago joan nahi nuke eta aztertu objektuen sinbologia eta hango gizartean izan duten eragina. Ondare materiagabea ere aztertu nahi dut, beraz.

Maiatzera arte egonen naiz Quebecen eta asmoa dut udan Oñati, Bordele eta Nafarroako artxibategietan murgiltzeko, hara itzuli baino lehen. Uste dut gai honen inguruko informazio gehiago aurkituko dudala hemen han baino.

Iratxe Andueza Rota

1994, Garralda

Garrantaldan eta Iruñean bizi eta ikasi ondoren, Baionan Euskal Ikasketak egin zituen. Ikasturte honen hasieran Kanadara joan da, Quebeceko Laval Unibertsitatara, bertako Lehen Nazioen indigenen eta euskaldunen artean izaniko harremanen inguruko ikerlana egitera. XVI. mendean hemengo arrantzaleek nolako tresnak eramaten zituzten aztertzen ari da zehazki. Jauzarrea euskal kulturaren azterketa eta zabalkunderako funtsak 2011tik antolatzen dituen nazioarteko biltzarretan aritzen da laguntzaile gisa.



Zer objektu dira aztertzen ari zarenak?

Normalean hilobietan aurkitutakoak: aizkorak, kobrezko ontziak... lanabesak, oro har. Hemendik hara eramandako objektuak. Hasteko, testuinguru bat sortzen ari naiz, orain arte argitaratu den materiala bilduz. Gauza asko ikertu dira arkeologian, toponimian, genetikan... baina falta da denboran kokatzea eta zergatiak argitzea.

Nor bizi zen han garai hartan?

Herri asko dira indigenak, baina Atlantikoko ertzean garrantzitsuenak ziren innuak, beothuk-ak, abenakiak, cris-ak, mi'kmaq-ak, iroquesak eta inuit-ak. Haiek "lehen nazioak" esaten diote beren buruari. Kanadako ekialdeko kostaldean, Ternuan, Labradorren eta San Laudendi golkoan bizi ziren herriekin izan zuten harremana euskaldunek bereziki. Mi'kamaqi "zurikoak" esaten zieten, agian euskaldunekin nolabaiteko antzekotasuna zutelako, agian azalaren kolorean. Oro har, -quois bukaera duten izen edo hitzak (*souricoa* -zurikoa- eta *iroquoia*) euskararekin dute lotura, Kanadako hizkuntzetan ez baitago horrelako atzizkirik.

Kolon hara joan baino lehenagoko harremanak dira horiek, beraz nork aurkitu zuen Amerika?

Galdera ona. 1342. urtekoa da dokumentatua dagoen lehen datua eta bada 1372ko Donibane Lohizuneko agiri bat euskaldunen eta itsasoz bestaldekoen arteko hartu-emanen hitz egiten duena. Euskaldunak aipatzen dituen lehen dokumentu garaikidea, berriz, 1517koa dugu. Guk uste baino lotura handiagoa izan dugu Kanadako herri indigenekin, aspaldi-aspalditik.

Haien arteko harremanak nolakoak ziren?

Akordio komertzialez harago, harreman ona izan dela ohikoa esanen nuke nik. Horren erakusgarri izan daiteke haien hiztegiaren *adeiskidex* (adiskide) eta *ania* (anaia) hitzak ageri direla. Hitzok haien hizkuntzetan barneratuta geratu dira mendeetan zehar. Horrez gain, euskaldunak oso trebeak ziren arrantzan eta ontzigintzan, eta hangoei teknika batzuk erakutsi zizkieten haien itsasontziak egin zituzten. Agiriaren aipatzen da, adibidez, euskaldunen bat han gelditu zela hizkuntza ikasteko eta hango

Mi'kmaq nazioko norbait Euskal Herrira etorri eta hemen gelditu zela.

Bestalde, toponimian izen andana gelditu da Kanadako Atlantiko kostaldean: Nouvelle Biscaye, Pirénées, Port Savalette (Zabaleta), Cap aux Basques, Île aux Basques, Port-au-chois (Portutxo)... Toponimiak erakusten digu noraino iritsi ginen.

Oraindik asko dago ikertzeko, baina argi dago euskaldunek ez zutela kolonizatu hura. Frantsesak berriz, XVII. mendean, harreman komertzialetik erabateko kolonizaziora pasa ziren.

Nola sortu zen euskara-algonkinoa pidgina?

Euskal arrantzaleak XVI. eta XVII. mendeko bisitari nagusietakoak ziren Kanadan. Horren testigantza euskal jatorria duten hainbat hitzetan dugu, bertako nazioen hainbat hizkuntzatan jasota daude. Horrekin batera, euskaldunen eta bertako nazioen arteko tratu komertzialerako hizkuntza sortu zuten.

Euskaldunek Kanadara iristean, hiru hizkuntza familia aurkitu zituzten: inuktitut, Labradorko inuitek hitz egiten zutena, hizkuntza irokesak eta hizkuntza algonkinoak. Azken horien eta euskararen artean sortu zen pidgin berezia. Pidgina harremanik gabeko bi hiztun komunitatek elkar ulertzeko sortzen duten hizkuntza praktikoa eta oinarrikoa da, hizkuntza baten egitura eta hiztegia oinarri hartuz. Adibide ezaguna "Apaizak hobeto" esaera da, agurtzeko orduan Kanadako "zer moduz?" galde-tu eta hala erantzuten zuten.

Pidgin horri buruzko gogoetak eta aurkitu diren aztarna linguistikoak oso garrantzitsuak dira hizkuntzan eginen diren ikasketentzat, baita euskaldunen eta Kanadako bertako nazioen artean izan diren harremanak ikertzen dituztenentzat ere.

Pidginaren adibide gehiago emango, mesedez?

Bi hitz aipatuko ditut, haien esanahia- ren garrantziagatik, harreman onaren erakusle izan daitezkeelako. Marc Les-carbot-ek 1607an aipatu zuen *adesquidex* hitza erabiltzen zutela Mi'kmaq naziokoek. Euskarazko *adiskide* hitzarekin duen antzekotasunak eta mi'kmaq-ek hitz egiten duten hizkuntzan antzeko hitzik ez egoteak, Peter Bakker euskal etimologia daukala ondorioztatzen

» "Euskara-algonkinoa Amerikako pidgin ez-indigena zaharrena da"

» "Kanadako indigenak sozialki ez daude ongi baloratuak. Turismoarekin lotutako ekimenetan baino ez zaie ematen garrantzia, gainerakoan batere ez"

» "Desobedientzia zibilaren aldeko iritzia oso zabaldua dago Kanadako indigenen artean"

Honen eta haren bila

"Islandia, Kanada, Ternua, Labrador eta San Laurendira joaten ziren euskaldunak arrantzaleak eta merkatariak ziren. Balea, bakailaoa eta itsas txakurren azala ekartzen zituzten. Hemengo kandelak pizteko erabiltzen zen balearen olio ere handik ekartzen zuten 'Europa argitzeko'".

eraman du. Bakker-ek *ania* hitzak ere euskal etimologia duela ondorioztatu du. 1630ean montagnais jendeak erabiltzen zuen hitza euskal *ania* hitzarekin lotu du. Haien hizkuntzan *ania* *nichtai* edo *nichim* esaten da.

Peter Bakkerren iritziz, *adesquide* eta *ania* euskal pidgin baten ondorio dira. Kanadako hainbat naziotako herritarrek hitz egiten zuten, gutxi gorabehera 1540. eta 1640. urteen artean. Amerikako pidgin ez-indigena zaharrena da.

Beste adibide askotxo ere aurki daitezke bertako hizkuntzetan txertatuta



gelditu direnak: *kessona* (gizona), *makia* (makila), *atouray* (atorra), *orignac*, *orignal* (oreina), *matachia* (txanpona), *pilotoua* (gidaria), *adesquidex/s* (adiskidea), *chabaya* (basatia), *endia* (handia), *echpata* (ezpata), *carcaria/ircay* (irri-karkara), *elege* (erregea).

Kontua da bertara iristen ziren beste europarrei ere pidgin horretan egiten zietela. Beraz, Kanadako bertakoen eta Europako herritarren artean erabilia zela uste da, ez bakarrik euskaldunekin. 1497an dokumentatuta dago. John Caboten (Genova, Italia) bidaiaren kronikan aipatzen da nola mi'kmaq-ek haiekin pidgina erabiltzen zuten.

Nola bilatzen duzu informazioaren arrastoa?

Oso zaila da datu zehatzak aurkitzea, normalean euskaldunak bidaiak ofizialez ez zirelako agertzen. Arrantzarako ontziak bidaltzen ziren, baina ez normalean potentzia handiek, Portugalek edo Frantziak, adibidez, antolatutako bidaietan. Gainera, Nafarroako konkistaren garaiaz ari gara hizketan eta oso zaila da euskaldunen arrastoak jarraitzea. Gertatu izan zait euskaldunak frantses bezala aurkitzea zenbait dokumentutan. Batzuetan arrantza-ontziak nondik abiatzen ziren ikusita edo abizeinei erreparatuta euskaldunen arrastoak aurkitzen dira.

Iratxe Andueza Stephen Keptin Augustine Mi'kmaq Kontseilu Nagusiko buruzagiarekin Kanadako Cape Breton Unibertsitatean, Eskozia Berrian.

**Kalitatea da
gure produktuen
ezaugarri nagusiena!**



**BISITA EZAZU
GURE DENDA**

Industrialdea B 7-8 partzela

**ABLITAS · Nafarroa
KOSTAPREZIOAN**


conservas artesanas
maría Jesús



www.conservasartesanas.com

Gaur egun nola daude herri indigenak Kanadan?

Kanadan 630 jatorrizko herri baino gehiago bizi dira eta bakoitzak bere kultura, hizkuntza eta ohiturak ditu. Lehen Nazioen Batzarra osatzen dute eta Kanadako Gobernuak egindako erroldaren arabera 698.025 indigena dira. Oso egoera txarrean bizi dira. 1980ko hamarkadara arte gobernuak ez zen haiekin bildu. Etnia horiek bizirik daude, baina haien egoera ez da batere erraza mendeetako zapalkuntza jaso dutelako. Hizkuntza eta kultura identitatearen galarak nabarmena dira.

Duela zenbait urte Otawan bizi izan nintzen hilabete batez eta mi'kmaq jendea eta haien kultura pixka bat ezagutzeko aukera izan nuen. Haien baloreetan naturari, ehizari, animaliei eta jendeari errespetua garrantzitsuena da. Hori da belaunaldiz belaunaldi transmititzen saiatzen direna.

Hemengo indigenekin parekotasunik ikusi duzu?

Bai, balore tradizionaletan, baita egungo mendekotasun egoerari dagokionez ere. Haiek, gainera, sozialki ez daude ongi baloratuak. Turismoarekin lotutako ekimenetan baino ez zaie ematen garrantzia, gainerakoan batere ez.

Sistema bitxia bezain zapaltzailea da. Ofizialki indigenatzat hartua izateko izena eman behar dute errolda batean eta erreserba batean bizi. Gauza on bakarra da zerga batzuk ez dituztela ordaintzen, beste gutzia ez dago haien alde. Kreditu txartela edukitzea edo mailegu bat eskatzea, adibidez, ez da batere erraza haientzat. Haien hizkuntzak eta kulturak zapaltzen zaizkie, egunero, nazio bezala, beste baten menpe daudelako.



DANI BLANCO

Azken hitza: Quebec-Garralda

“Quebecen egun hauetan zero azpitik 26 gradu ditugu, edo hotzago. Hala ere, Garraldako etxetzar horietan hotz handiagoa egiten du Kanadan baino! Jendea oso atsegina da. Berehala hasten zaizkizu hizketan kalean eta toki guztietan. Beti daude laguntzeko prest eta interes handia dute Euskal Herriaz. Txarrena da nahiko garestia dela eta oraingoz ez dudala inolako bekarik lortu, baina oso garrantzitsua da niretzat ikasketak *in situ* egitea.”

Hala ere, batzuk haien aurka mintzatzen dira, pribilegiadunak direla esaten dute, zenbait zergatati libre daudelako.

Zer dugu haiengandik ikasteko?

Esanen nuke oso interesgarria dela ikustea nola ari diren lanean. Kontzien-

tzia handia dute eta borrokan ari dira haien eskubideen alde. Bertako askok, esate baterako, uko egin diote zerrendetan izena emateari, eta mugimenduak daude hauteskundeetan parte ez hartzeko. Desobedientzia zibilaren aldeko iritzia oso zabaldua dago. ■

EUSKAL OROIGARRIAK

Harizko brodatu pertsonalizatuetan adituak

Kale Nagusia, 16
San Jeronimo, 14
Portu, 14

20003 Donostia · Euskal Herria
☎ 650 210 339 / 618 094 279 · arkupe2@gmail.com